

✖ Etzi.pm-ko zenbait eduki, Mugikarian, [mugikorrentzako euskarazko hedabide natiboan ere hedatuko dira](#). Mugikaria testuinguru mugikorrerako hedabide natiboan parte hartzeko arrazoi nagusiak bi izan dira:

Lehena, kolaborazioa eta esperimentazioa bera dira. Komunikazio paradigma berrietan sakontzeko esperimentatzea beharrezkoa da, baina bakarrik egitea baino hobe antzeko gaietan gabiltzanen artean sareak eraikiz egitea, Mugikaria laborategi bat izango da guretzako.

Bigarrena noski, hizkuntza, euskara bera da. Sortzen ditugun edukiei testuinguru mugikorrean ere hedapena, balio erantsia, eman nahi diegu. Horregatik, gure harpideei bereziki eskaintzen dizkiegun zenbait eduki etzi.pm-n noski, baina baita Mugikarian era irekian eskaintzea erabaki dugu.

Mugikaria instalatzeko:

- [Google Play](#) (Android)
- [iTunes](#) (iOS)

Informazio faroa ere berrituko dugu, hemendik aurrera Informazio faroak harpideentzako berezko edukiaren txokoa izango da eta atal berriak izango ditu bere baitan.

- Nabigazio karta: orain arteko Informazio faroak hartuko duen izen berria.
- Bitakora: Aktualitateko gaiak lotutako editoreek sortutako eduki laburra. (Mugikaria aplikazioan ere agertuko direnak batzuk).
- Eskala erregistroa: Gai zehatz bati lotutako sakontasunarekin landutako edukia.
- Almanaka: Urtekari edo urteko momentu zehatzetan ateratako laburpen moduko edukia.

Hasi gara bertako bitakora betetzen eta horri lotuta zenbait aldaketa egin ditugu harpidetza ereduari, hauek dira:

- Harpideentzako edukia aingura (⌘) batez markatzen dugu orain. Horrela harpide ez direnek ere argazki, titular eta sarreratxo bat ikusiko dute, edukia ez. Beharrezko ikusi dugu eduki hori nabarmentzea.
- Bi asteetan zehar harpideentzako edukia harpideentzako bakarrik mantenduko dugu. Ondoren era librean zabalduko dugu ondare komunera pasatuz.
- Harpideentzako zenbait eduki, aukeraketa bidez, Mugikaria aplikazio mugikorrean atal berezitu batean ere agertuko dira. Ez guztiak, aukeratutako batzuk bakarrik.

Bestela atal irekia, kolaboratzaile guztien ekarpenak berdintzeko dute astrolabioa, iparrorratza, itsasoa eta uhartera kategoriatan. Hori bai, laster berrikuntza gehiago eta kolaboratzaile berriak ere egongo direla aurreatu dezakegu ☐

## Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)

- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)

